

ENLIGHT+ call October 2026

University of the Basque Country

EBAZPENA, SINADURA ELEKTRONIKOAREN DATAKOA, TRANSFERENTZIA ETA NAZIOARTEKOTZE ERREKTOREORDEARENA, ENLIGHT+ OCTOBER 2026 DEIALDIAREN OINARRIAK ONARTZEN DITUENA ALIANTZAKO UNIBERTSITATEEN ARTEKO LANKIDETZA AKADEMIKOKO PROIEKTUAK FINANTZATZEKO

Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetzaren deialdi honek ENLIGHT aliantzako beste unibertsitateekin lankidetzan ikasketa-proiektuak garatzeko laguntzak esleitzeko prozedura eta ezarritako baldintzak ezartzen ditu.

ENLIGHT proiektuari lotutako funtsetatik eratorritako kreditua badagonez, eta ditudan eskumenak erabiliz,

EBATZI DUT:

LEHENA: ENLIGHT+ October 2026, aliantzako unibertsitateen arteko lankidetzak akademikoko ekimenetarako, deialdiaren oinarriak onartzea eta argitaratzea.

BIGARRENA: Finantzatutako ekimenen azken kopurua aurrekontu erabilgarrira egokituko da.

Lokalizatzailea / Localizador	IVVH3WCPHEGT3VBI5XWTKMTD74	Data / Fecha	25/09/2026 11:16:49
Araua / Normativa	Elektronikoki sinatutako dokumentua (203/2021 ED). Benetakotasuna adierazitako URLan lokalizatzaile bidez egiaztatu daiteke / Documento firmado electrónicamente (R.D.203/2021). Autenticidad verificable mediante localizador en la url indicada.	Dokumentuaren baliozkotasuna / Validez del documento	Otros
Sinatzaile / Firmante	MIREN GOTZONE BARANDIKA ARGOITIA		
Egiaztapenerako URLa / Url Verificación	https://app.ehu.eus/verifirma/code/IVVH3WCPHEGT3VBI5XWTKMTD74	Orrialdea / Página	1/9



ENLIGHT+ call October 2026

University of the Basque Country

AURKIBIDEA

1.	oinarria.- DEIALDIAREN XEDEA.....	3
2.	oinarria.- GASTU FINANTZAGARRIAK	4
3.	oinarria.- GEHIENKO ZENBATEKO FINANTZAGARRIA.....	5
4.	oinarria.- ESKAERAK AURKEZTEA.	5
	4.1.- Eskaera eta nahitaezko dokumentazioa.	5
	4.2.- Eskaerak aurkezteko epea eta modua.	5
	4.3.- Eskaera zuzentzea eta hobetzea.	5
5.	oinarria.- HAUTAPEN PROZEDURA.....	6
	5.1.- Ebaluazioa.	6
	5.2.- Hautaketa irizpideak.	6
	5.3.- Ebazpena.....	7
6.	oinarria.- PARTE HARTZEKO KONPROMISOAK.....	7
7.	oinarria.- DIRULAGUNTZAREN ORDAINKETAREN ZEHAZTAPENAK.....	7
	7.1.- Aurrekontuaren Exekuzioa.....	7
	7.2.- Ordainketak.....	7
	7.3.- Gastuen Justifikazioa.....	8
8.	oinarria.- ERREKURTSOAK.	8

Lokalizatzailea / Localizador	IVVH3WCPHEGT3VBI5XWTKMTD74	Data / Fecha	25/09/2026 11:16:49
Araua / Normativa	Elektronikoki sinatutako dokumentua (203/2021 ED). Benetakotasuna adierazitako URLan lokalizatzaile bidez egiaztatu daiteke / Documento firmado electrónicamente (R.D.203/2021). Autenticidad verificable mediante localizador en la url indicada.	Dokumentuaren baliozkotasuna / Validez del documento	Otros
Sinatzaile / Firmante	MIREN GOTZONE BARANDIKA ARGOITIA		
Egiaztapenerako URLa / Url Verificación	https://app.ehu.eus/verifirma/code/IVVH3WCPHEGT3VBI5XWTKMTD74	Orrialdea / Página	2/9



ENLIGHT+ call October 2026

University of the Basque Country

OINARRIAK

1. oinarria.- DEIALDIAREN XEDEA.

Deialdiaren xede nagusia, [ENLIGHT](#) aliantzako hamar unibertsitateen (Euskal Herriko Unibertsitatea, Bernako Unibertsitatea, Bordeleko Unibertsitatea, Bratislavako Comenius Unibertsitatea, Galwayko Unibertsitatea, Ganteko Unibertsitatea, Göttingeneko Unibertsitatea, Groningeneko Unibertsitatea, Uppsala Unibertsitatea eta Tartuko Unibertsitatea) artean komunitate akademiko dinamiko eta lankidetzazkoa sustatzea da, irakasleei, langile akademikoei eta ez-akademikoei, doktoregaiei eta ikasleei laguntza ekonomiko eskainiz. Laguntza honek (seed funding) aurretik finantzaketarik jaso ez duten eta behetik gorakoak (bottom-up) diren ekimen eta lankidetzak berriak sustatzea du helburu eskala txikiko proiektu bateratuak, lankidetzak ekitaldiak, workshopak edo tailerrak abian jartzea ahalbidetuz.

Deialdi honen esparruan, honako ekimen mota hauek finantzatu dira:

Komunitatea indartzeko ekimenak: lankidetzak-harreman eta aliantza berriak sortzea eta sendotzea helburu duten ekimenak, erronka eraldatzaileei modu bateratuan aurre egiteko. Horien artean daude, besteak beste, ikerketan oinarritutako hezkuntza-erlaketak sustatzea eta hezkuntza-berrikuntza bultzatzea.

Campus inklusiboak sustatzeko ekimenak: ENLIGHT aliantzako campusetan gizarte-inklusiua, irisgarritasuna, aukera-berdintasuna eta aniztasuna indartzera bideratutako ekimenak.

Campus berdeak sustatzeko ekimenak: ingurumen-jasangarritasuna, klima-ekintza eta jardunbide jasangarriak sustatzen dituzten ekimenak, ENLIGHTeko campusak ingurumenarekiko arduratsuagoak eta jasangarriagoak izan daitezen.

Lokalizatzailea / Localizador	IVVH3WCPHEGT3VBI5XWTKMTD74	Data / Fecha	25/09/2026 11:16:49
Araua / Normativa	Elektronikoki sinatutako dokumentua (203/2021 ED). Benetakotasuna adierazitako URLan lokalizatzaile bidez egiaztatzea / Documento firmado electrónicamente (R.D.203/2021). Autenticidad verificable mediante localizador en la url indicada.	Dokumentuaren baliozkotasuna / Validez del documento	Otros
Sinatzaile / Firmante	MIREN GOTZONE BARANDIKA ARGOITIA		
Egiaztapenerako URLa / Url Verificación	https://app.ehu.eus/verifirma/code/IVVH3WCPHEGT3VBI5XWTKMTD74	Orrialdea / Página	3/9



ENLIGHT+ call October 2026

University of the Basque Country

Aldaketa sustatzeko ikasleen ekimenak: ikasleek gidatutako ekimenak, jasangarritasunaren eta inklusioaren inguruko sentsibilizazioa areagotzeko, sormena sustatzeko eta ENLIGHT Europar Unibertsitateko ikasle-komunitatean ekintza eta parte-hartze aktiboa bultzatzeko.

2. oinarria.- GASTU FINANTZAGARRIAK.

Honako gastu hauek finantzatu ahal izango dira, besteak beste:

Antolaketa gastuak: laguntza eskatzailearen unibertsitatean egiten diren eta ENLIGHT komunitatearen barruko lankidetzaren indartzea helburu duten eskala txikiko ekitaldiak, konferentziak, dibulgazio-programak, kanpainak edo tailerrak finantzatzera bideratuta dago. Laguntza horren bidez, besteak beste, mantenuarekin, espazioen kudeaketarekin, komunikazioarekin edo eskatzaileak bere gain hartutako bestelako gastu lotuekin zerikusia duten kostuak estali ahal izango dira.

Mugikortasun gastuak: jarduera bateratueterako eskaintzen da, eta beste mugikortasun-programa edo laguntza batzuen bidez estaltzen ez diren mugikortasun-gastuak ordaintzeko erabili beharko da. Jarduera akademiko edo instituzionalak ENLIGHT ekimeneko kide den bazkideetako baten unibertsitate-egoitzan edo -campusean egin beharko dira. Programatutako jarduera aurrekoak ez diren beste kokaleku batean eginez gero, ENLIGHT bulegoaren alde aurreko baimena eskatu eta lortu beharko da, hark nahitaez ebaluatu eta onar dezan. Gastu horien barruan sar daitezke, besteak beste, bidaia-gastuak, ostalua eta eskatzaileak bere gain hartutako mugikortasunarekin lotutako bestelako gastuak.

Aurrerago aipatu kategorietan sartzen ez diren beste hornidura/zerbitzu kostuak, betiere ENLIGHT+ deialdiarekin bat badatoz. Alabaina, **ENLIGHT bulegoari aurrez kontsulta egitea gomendatzen da gastuaren onargarritasuna ziurtatzeko** hurrengo helbide elektronikora idatziz: enlight.deialdiak@ehu.eus.

Lokalizatzailea / Localizador	IVVH3WCPHEGT3VBI5XWTKMTD74	Data / Fecha	25/09/2026 11:16:49
Araua / Normativa	Elektronikoki sinatutako dokumentua (203/2021 ED). Benetakotasuna adierazitako URLan lokalizatzaile bidez egiaztatu daiteke / Documento firmado electrónicamente (R.D.203/2021). Autenticidad verificable mediante localizador en la url indicada.	Dokumentuaren baliozkotasuna / Validez del documento	Otros
Sinatzaile / Firmante	MIREN GOTZONE BARANDIKA ARGOITIA		
Egiaztapenerako URLa / Url Verificación	https://app.ehu.eus/verifirma/code/IVVH3WCPHEGT3VBI5XWTKMTD74	Orrialdea / Página	4/9



ENLIGHT+ call October 2026

University of the Basque Country

3. oinarria.- GEHIENKO ZENBATEKO FINANTZAGARRIA.

Proposamen bakoitzeko eska daitekeen gehienezko aurrekontua ezin da **6.000 eurotik** gorakoa izan; ikasleek bultzatutako ekimenen kasuan, berriz, muga hori **1.000 eurokoa** izango da. Ostatu- eta jatordu-gastuen zerbitzu ordainei dagokionez, uneoro errespetatu beharko da EHUK indarrean duen zerbitzuengatik eta protokolo eta ordezkartza gastuengatik ordainen arloko zehaztapenei buruzko [erabakia](#).

4. oinarria.- ESKAERAK AURKEZTEA.

4.1.- Eskaera eta nahitaezko dokumentazioa.

Pertsona edo unitate eskatzaileek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- a) Eskaera orria.
- b) I. eranskina – [Application form ENLIGHT+](#).

4.2.- Eskaerak aurkezteko epea eta modua.

Eskaerak egiteko epea zabalik egongo da **2026ko urriaren 19tik 31ra arte (biak barne)**. Dokumentazioa erregistro bidez igo beharko da U020000379 - Unibertsitate arteko Lankidetzaren eta ENLIGHTen Zuzendaritzara bideratua.

4.3.- Eskaera zuzentzea eta hobetzea.

Eskaerak ez baditu betetzen 39/2015 Legearen 66. artikuluko baldintzak eta, hala badagokio, 67. artikulukoak, edota aplikagarria den legedi espezifikoan ezarritako beste batzuk, hamar eguneko epea emango zaio interesdunari hutsak zuzendu edo falta diren dokumentuak aurkezteko, eta adieraziko zaio ezen, hori egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, dagokion erabakia eman ondoren, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitako moduan.

Lokalizatzailea / Localizador	IVVH3WCPHEGT3VBI5XWTKMTD74	Data / Fecha	25/09/2026 11:16:49
Araua / Normativa	Elektronikoki sinatutako dokumentua (203/2021 ED). Benetakotasuna adierazitako URLan lokalizatzaile bidez egiaztatu daiteke / Documento firmado electrónicamente (R.D.203/2021). Autenticidad verificable mediante localizador en la url indicada.	Dokumentuaren baliozkotasuna / Validez del documento	Otros
Sinatzaile / Firmante	MIREN GOTZONE BARANDIKA ARGOITIA		
Egiaztapenerako URLa / Url Verificación	https://app.ehu.eus/verifirma/code/IVVH3WCPHEGT3VBI5XWTKMTD74	Orrialdea / Página	5/9



ENLIGHT+ call October 2026

University of the Basque Country

Akatsak zuzentzeko eskatzen zaien erregistro elektronikoaren bidez aurkeztuko dute errekeritutako dokumentazioa.

5. oinarria.- HAUTAPEN PROZEDURA.

5.1.- Ebaluazioa.

Proposamenak aurkezteko epea bukatu ondoren, Hautapen Batzorde batek aztertuko ditu eskaerak, eta batzorde horretako kideak izango dira:

- Unibertsitate arteko Lankidetzaren eta ENLIGHTen zuzendaria;
- (Hezkuntza Fakultateko irakasle bat / EHUKo irakasle bat hezkuntza ekimenetan aditua);
- ENLIGHTeko teknikari bat.

Soilik ebaluatuko dira behar bezala aurkeztutako eskaerak.

5.2.- Hautaketa irizpideak.

Irizpide formalak: Gutxienez ENLIGHT sareko hiru [bazkidek](#) hartu behar dute parte proposatutako ekimenean, edota bi bazkidek *virtual exchange, double degree schemes and microcredential programmes (cluster of programmes)* kasuetan. Eskatzaileek lotura instituzionala izan behar dute Euskal Herriko Unibertsitatearekin ekimenak irauten duen bitartean, etenik gabe.

Proposamenak ekimen berri bat izan behar du, aurretik finantzaketarik jaso ez duena ENLIGHTetik. Osterantzean, proposamena baztertua izango da ebaluazio fasean.

Proposatutako jardueren formatuak ENLIGHT+ deialdian zehaztutako [gidalerroak](#) bete behar ditu.

Kalitatea: Proposatutako ekimenen bideragarritasuna ebaluatuko da. Aurreikusitako emaitzek ENLIGHT unibertsitate bazkideetako helburu-taldean (ikasle, langile,

Lokalizatzailea / Localizador	IVVH3WCPHEGT3VBI5XWTKMTD74	Data / Fecha	25/09/2026 11:16:49
Araua / Normativa	Elektronikoki sinatutako dokumentua (203/2021 ED). Benetakotasuna adierazitako URLan lokalizatzaile bidez egiaztatu daiteke / Documento firmado electrónicamente (R.D.203/2021). Autenticidad verificable mediante localizador en la url indicada.	Dokumentuaren baliozkotasuna / Validez del documento	Otros
Sinatzaile / Firmante	MIREN GOTZONE BARANDIKA ARGOITIA		
Egiarapenerako URLa / Url Verificación	https://app.ehu.eus/verifirma/code/IVVH3WCPHEGT3VBI5XWTKMTD74	Orrialdea / Página	6/9



ENLIGHT+ call October 2026

University of the Basque Country

akademiko) eskura egon behar dute. Proposamenak ENLIGHT+ programaren helburuei egiten dien ekarpenaren arabera ebaluatuko dira.

5.3.- Ebazpena.

Hautaketa Batzordeak proposamenak behin-behinean onartuko ditu egiaztatu ondoren eskabideek deialdi honetan ezarritako irizpideak eta helburuak betetzen dituztela eta funtsak erabilgarri daudela.

Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordeak, aintzat harturik batzordeak eginiko hautapena, aginduko du onartutako proposamenen zerrenda, atzera botatakoena eta zuzenketa behar duten eskabideena ez ezik onartutako eskabideei esleitutako zenbatekoa ere argitaratzeko EHUKO ENLIGHT bulegoaren web orrian.

6. oinarria.- PARTE HARTZEKO KONPROMISOAK.

Finantzaketa honen onuradunek konpromisoa hartzen dute Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioaren erakunde-irudi grafikoa txertatzeko, laguntza eman duen organoa den aldetik, emandako laguntzatik eratorritako hedapen-, komunikazio- eta publizitate-jarduera eta -material guztietan.

7. oinarria.- DIRULAGUNTZAREN ORDAINKETAREN ZEHAZTAPENAK.

7.1.- Aurrekontuaren Exekuzioa.

Aurrekontuaren exekuzioa 2027ko urriaren 31 baino lehen egin beharko da, eta, edonola ere, dagozkien fakturak zein IZAPIDEak gehienez ere 2027ko azaroaren 30erako aurkeztu beharko dira.

7.2.- Ordainketak.

ENLIGHT organikoaren arduradunak bideratuko ditu ordainketak: dirua aurreratu duen pertsonari IZAPIDE espediente bidez, edota lehenik eta behin, azken aurrekontua helaraziz ENLIGHT bulegoari eta behin zerbitzua gauzatua izan denean, faktura

Lokalizatzailea / Localizador	IVVH3WCPHEGT3VBI5XWTKMTD74	Data / Fecha	25/09/2026 11:16:49
Araua / Normativa	Elektronikoki sinatutako dokumentua (203/2021 ED). Benetakotasuna adierazitako URLan lokalizatzaile bidez egiaztatu daiteke / Documento firmado electrónicamente (R.D.203/2021). Autenticidad verificable mediante localizador en la url indicada.	Dokumentuaren baliozkotasuna / Validez del documento	Otros
Sinatzaile / Firmante	MIREN GOTZONE BARANDIKA ARGOITIA		
Egiaztapenerako URLa / Url Verificación	https://app.ehu.eus/verifirma/code/IVVH3WCPHEGT3VBI5XWTKMTD74	Orrialdea / Página	7/9



ENLIGHT+ call October 2026

University of the Basque Country

aurkeztuz ENLIGHTi pagamendua egiteko. Dokumentazioa modu egokian igotzeko DIR kodeak edota organikoaren eta funtzionalaren datuak aldeaz aurre galdegingo dira enlight.deialdiak@ehu.eus helbidera.

Ekimenaren gastuen ordainketak itzultzeko eskaera modu soltean edo taldekatuta eskatzea egongo da.

7.3.- Gastuen Justifikazioa.

Ezin izango da 3. puntuan ezarritako kopurua baino gastu altuagoa justifikatu, ezta eskabidean zehaztutako maximoa ere. Soilik proposamenean zerrendatutako EHuko kideen gastuak izango dira zurutak.

Gastuen justifikazioak EHuko araudi orokorrarekin bat etorri beharko du une oro. Jarduera burutzeko beharrezkoak diren [kontratazioak](#) interes orokorreko zerbitzu edota horniduren enpresa esleipendunen bidez egin beharko dira.

Erreklamaturako gastuak ENLIGHT+ ekimenari loturikoa izango da, eta dagokion egiaztagiri-dokumentuarekin batera aurkeztuko da. Kasuko, bidaia gastuetan: programa, bertaratze-ziurtagiria helmuga unibertsitateak izenpetua, fakultateko lizentzia, bidaia- eta ostatu-txartelak, tiketak edota fakturak eta horien bankuko ordainagiriak, hala badagokio. Aldiz, antolaketa gastuei dagokionez: programa bidali beharko da fakturarekin batera.

8. oinarria.- ERREKURTSOAK.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu daiteke dagokion administrazioarekiko auzien epaitegian, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasi eta bi (2) hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera. Horrek ez du eragozten, hala badagokio, ebazpena eman duen organo beraren aurrean aukerako berraztertze-errekurtsua

Lokalizatzailea / Localizador	IVVH3WCPHEGT3VBI5XWTKMTD74	Data / Fecha	25/09/2026 11:16:49
Araua / Normativa	Elektronikoki sinatutako dokumentua (203/2021 ED). Benetakotasuna adierazitako URLan lokalizatzaile bidez egiaztatu daiteke / Documento firmado electrónicamente (R.D.203/2021). Autenticidad verificable mediante localizador en la url indicada.	Dokumentuaren baliozkotasuna / Validez del documento	Otros
Sinatzaile / Firmante	MIREN GOTZONE BARANDIKA ARGOITIA		
Egiaztapenerako URLa / Url Verificación	https://app.ehu.eus/verifirma/code/IVVH3WCPHEGT3VBI5XWTKMTD74	Orrialdea / Página	8/9



ENLIGHT+ call October 2026

University of the Basque Country

aurkeztea hilabeteko epean, egintza espresua bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz.

Leioan, sinadura elektronikoaren datan.

Miren Gotzone Barandika Argoitia

Transferentzia eta Nazioartekotzeko Errektoreordea



Lokalizatzailea / Localizador	IVVH3WCPHEGT3VBI5XWTKMTD74	Data / Fecha	25/09/2026 11:16:49
Araua / Normativa	Elektronikoki sinatutako dokumentua (203/2021 ED). Benetakotasuna adierazitako URLan lokalizatzaile bidez egiaztatu daiteke / Documento firmado electrónicamente (R.D.203/2021). Autenticidad verificable mediante localizador en la url indicada.	Dokumentuaren baliozkotasuna / Validez del documento	Otros
Sinatzaile / Firmante	MIREN GOTZONE BARANDIKA ARGOITIA		
Egiaztapenerako URLa / Url Verificación	https://app.ehu.eus/verifirma/code/IVVH3WCPHEGT3VBI5XWTKMTD74	Orrialdea / Página	9/9

